


EUSKARAREN

Hizkuntz

politika



Paulo Agirrebaltzategi

EKBko Lehendakaria

EUSKARAKO POLITIKAK

Zenbat politika daude euskarari begira Euskal Herriko administrazio publikoen aldetik? Ez naiz sartuko udalek edo eskualde edo herrialdeetako erakunde publikoek (diputazioek, etab.) daramatzatenetan. Horietatik goragoko administrazio publikoen politikaz (politikez) ari naiz. Hasteko ezagunak dira bi gobernu estatalen (Frantziakoaren eta Espainiakoaren) politika ezberdinak, egoera legal ezberdinetan oinarrituta gainera. Iparraldean Pariseko gobernuak bere politika ezartzen du, ministerio zentralen nahiz eskualdeko ordezkarien bidez; Espainiako gobernuak ere bere hizkuntz politika egiten du Hegoaldean, zuzenean edo hemen bertako organo estatalen (delegatuen, gobernu zibilen, armadaren, segurtasun-indarren eta bestelako organo guztien bidez).

Gobernu autonomoetara igaroz, Nafarroakoak eta Gasteizkoak beren politika ezberdinak daramatzate. Areago, aspalditxo batek baino gehiagok galdetzen du zenbat politika ari ote diren ezartzen Gasteizko gobernuan, sail ezberdinen arabera: Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntz Politikara Idazkaritza, etab.

Egoera kaotikoa da euskarako politikarena. Eta euskal herritar guztiok, eta bereziki euskalgintzan dihardugunok egoera kaotiko horretan galduta ibili beharrean gertatzen gara, Euskal Herri osoan jokatu nahi dugunean, Euskara Euskal Herri osokoa baita. Berriki adierazia du Mari Karmen Garmendiak egoera hori konpondu beharra, eta gutxienez Euskal Herri bertako erakunde publikoen aldetik politika bateratua markatu eta egin beharra. Bateratua behintzat, bakarra ez baldin bada ere!

Guztiz beharrezkoa dugula uste dut. Baina zer nolakoa izan daiteke hiru administrazioen arteko politika bateratu hori, egoera juridiko hain ezberdinetatik abiatzen direnean, batetik, eta ideologiaz eta proiektu politiko urrunekoz jokatzen dutenean? Areago, beren programa politikoen ezberdintasuna nabarmentzeko, hizkuntza eta euskararen kapituluaz baliatzen direnean?

Nere ustez, horien politika bate-

ratuak abiaburu politiko oinarrizko eta behinen hau eduki beharko luke euskararen normalkuntzari begira: Euskara euskal herritar guztiona eta guztiontzat dela, eta euskal herritar guztiok dugula euskara ikasteko eta hori erabiltzeko eskubidea. Horren gain administrazio bakoitzak bere azken helburuak ipiniko ditu motzagoak ala luzeagoak, baina ez dira beren artean dibergenteak izango; bestalde, gutxieneko helburu batzuk jarri beharko lituzkeela, denentzat politika bateratua markatuko dituztenak; horiek seinalatzea eta erabakitzea ez da administrazio publiko guztiak beheerako helburu horien barruan mugatzea; denentzat gutxieneko helburuak ipiniz gero, hortik gora administrazio bakoitzak izango luke bere erdibideko eta azkenburuko helburuak markatzeko eta horiei begira politika zuzena egiteko, euskararen normalkuntzari begira.

Uste dudanez, behar-beharrezkoa da horrelako planteamendua egitea, datozen urteetarako Euskal Herri osorako euskararen politika errazionala egingo bada, eta herritarrok oraingo sasi juridiko eta politikoan harrapatuta eta ito beharrean edukiko ez bagaituzte.

(4-5 orrialdeetan jarraitzen du).